



## ZALDIZKOAK, AMAZONAK, JINETERAK ETA HIPIKA

Aunque para algunos sea difícil de entender, el ajedrez no es uno de los pocos deportes en los que hombres y mujeres compiten juntos (que su trabajo costó...). La historia del deporte está colmada de prejuicios pendientes de superar, sobre todo si implica competición. Cuando la mujer montó a caballo, surgió el debate sobre si podría hacerlo. Sin embargo, pese al simbolismo que implica el binomio "mujer-equino", la hípica es una de las pocas competiciones que desde 1900 admite la competición entre diferentes sexos.

*Henena Sánchez Jericó*

Emakumea eta zaldia, gizonaren jabetzako ondasunen kategorian berean egon izan dira sartuta: biak dira botere eta ohorearen ezaugarri. Zaldiaren eta emakumearen arteko antzekotasun

bakarra haien gainean norbait zamalkatzea izan da luzaroan. Hala egiaztatzen du Mexikoko harako kantutik: "Emakumeek moxalak bezalakoak izan behar dute, haien jabearekin harrotu

eta moteldu egiten dira, eta ez dakite hanka gainean zaldizkorik eramaten". Lelo horren soinurekin, zaldunaren figura literatura-lanetan azaldu izan da mendeetan zehar, amodioaren

## Refranero popular: "Al caballo, con la rienda, y a la mujer, con la espuela"

perfekzioa gogora ekartzen dutelarik. Zaldunak zaldizko bihurtu ziren norgehiagokaren eremuan, eta zaldiz ibiltzen ziren emakumeak, berriz, amazona. Hitz horrek ospe txarreko historia luzea du atzetik eta askorentzat ez da oso ezaguna. Aitzitik, jineteraren esanahia, hots, turisten gainean zamalkatu ohi dena, mundu osoan hedatu da.

Mitologia grekoan, amazonak emakume gerlariak osatutako elkarteak ziren. Gizonak amazonen antolakuntzatik kanpo zeuden, nahiz eta haiekin noizbehinkako sexu-harremanak izan. Umea izaten zutenean mutila bazen, hiltzen omen zuten. Neska bazen, berriz, arku-lari izateko trebatzen omen zuten. Tradizioaren arabera, oso txikiak zirela bularra erre egiten zieten, arkuaren tentsioa errazte aldera. Oinarri errealik ez duen kondaira beltza inondik ere, aditu askoren iritziz.

Amazonak izan zirela ukatu arren, antzinako hainbat autore grekok aipatu izan dituzte eta artearen ikonografian agertu izan dira zaldiz zebiltzan emakume ederrak, inolako ebaketarik ez zutela. 1950eko hamarkadan, berriz, gure aroaren aurreko IV. mendeko hilobi batzuk aurkitu zituzten Ukrainako hegoaldean. Emakumeenak ziren eta, haien gorpuzkiekin batera, ezpatak, dagak, armadurak, lantzak eta

baita zaldi-hezurak ere azaldu ziren. Horrek egiaztatzen du zaldiz ibili ohi ziren emakume gerlaririk izan zela, eta grekoek amazonak kokatu ohi zituzten lekutik gertu, gainera.

Gaur egungo zenbait ikerlaren arabera, zaldiketa ez omen da kirol egokia emakumeentzat, giharren jarrerak eta tentsioak arazoak eragin baititzakete haien ugaltze-aparatuari (garai batean gauza bera esan zuten bizikletari buruz). Hala ere, badira zaldiz ibili izan diren eta inolako arazo ginekologikorik ez duten emakumeak.

Haien artean Beatriz Ferrer-Salat kataluniarra aipatu beharra dago, hainbat lehiaketa irabazi duelako, Munduko Zaldi Jokoetan domina bat lortu zuen aurreneko amazona izateaz gain. Beste adibide bat Flor Izaba venezuelarra da, 86 urte zituela eta bere bizkarrean

lan handia eginda, COIko (Nazioarteko Batzorde Olinpiarra) batzarrean parte hartu zuen lehenengo emakumea izan baitzen, 1981ean. Era berean, Stokholm-eko Joko Olinpiarrean parte hartu zuen 1956an, Venezuelako hipika-taldean. Emakumea eta zaldiketa bateraezinak ez direla frogatzen duten beste izen batzuk Carrie Ford, Anky Van Grunsven, Ulla Salzgeber, Anne Barbara edo Ana Lizaso dira, nahiz eta entrenatzaile batzuek beren zaldiak sexu ahul esan ohi zaionaren esku uzteko gogo handirik ez izan. Halaxe gertatu zen duela hiru urte, Marcia Aedo eta Cristina Pontigo Txileko Jorge Morales Zaldizko Eskolatik kanporatu zituztenean. Eskolako emakume bakarrak ziren, eta biek urtebetetik gorako esperientzia zuten zaldi gainean zamalkatzen. **F**

